



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Kulturako foru diputatuak Bilboko Guggenheim Museoagaz sinatutako akordioa zabaldu izana defendidu dau Batzar Nagusietan

Bilbon, 2014ko azaroaren 13an.

Josune Ariztondo Kulturako foru diputatuak, Bilboko Guggenheim Museoaren Kudeaketa akordioa barriztu izana defendidu dau, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Solomon R. Guggenheim Foundation izenekoaren artean izandako negoziazioen ostean.

Bere esku hartzean Ariztondok esan dauenez, alde guztiak ados egozan Guggenheim Bilbao Museoaren eta Estatu Batuetako fundazioaren arteko harremanagaz jarraitzera ez mugatzeagaz, akordio hori zabaldu gura zan, “lankidetzari balio erantsia emoten deusien proiektu barriak jasoteko eta harremana indartzeko, hasieran aurreikusitakoa baino epe luzeagoa izango dauen akordioaren bitartez”.

Kulturako foru diputatu andreak Barrikuntza Akordioaren printzipioak eta erespideak zehaztu ditu. Hori garatzeko lanak amaitu barik dagoz oraindino. “Alde biak beharrean ari gara, aurreikuspenen arabera datozen asteetan amaituta eukiko dogun behin betiko testuaren bila”, esan dau.

Ariztondok zehaztu dauenez, “aurreikuspenak kontuan izanda urtea amaitu aurretik gauzatuko dan barriztapenak egitura barria ekarriko dau Solomon R. Guggenheim Foundation izenekoagaz daukaguzan harremanetan, eta testuinguru barri horretan alkarlana izango da nagusi, Guggenheim Bilbao Museoak bere ibilpidean erakutsi dituan heldutasunagaz eta esperientziagaz bat etorri”. Ganera, ekimena Eusko Legebiltzarraren Ponentziaren gomendioetan eta Bizkaiko Batzar Nagusietan onartu zan Arauz Besteko Proposamenean oinarritzen dala be esan dau.

Kulturako Foru Diputatua berak eskatuta agertu da gai horren barri emoteko. Bilduko Batzarretako Taldeak be agerraldi bera eskatuta eukan. Irune Soto bozeroaleak exijentzia maila altuagoa eskatu dau Euskadiko erakundeen aldetik, Solomon R. Guggenheim Foundation izenekoagaz dagoan akordioa barriztetako orduan, eta Bilboko museoa “Ameriketako fundazioaren frankizia izateari ixteko” aukerea aztertzea be proponidu dau. Sotok bere taldearen eskari batzuk bideratu deusaz Kulturako Foru Diputatuari, “bertako ikusleentzako sarrerak merketzea, kontserbatzaile talde propioa eratzea eta bertako artisten sustapen handiagoa”, beste batzuen artean.

ELORRIOKO ARGİÑETA INTERPRETAZINO ZENTROA

Ariztondok iragarri dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera jarraituko dau 2015ean Elorriion dagoan Argiñetako moltsoa eta bere ingurunea berreskuratzeko eta leku osoari balioa emoteko proiektuagaz. Moltso hori VII. eta XI. mendeen artean datauta dago, eta Goi Erdi Aroko Euskal Herriko hilarri eta hilobi kontzentrazinorik handiena erakusten dau. Gai horri jagokonez, Argiñetako San Adrian baseleizan Arkeologiari eta Historiari buruzko Interpretazino Zentro bat



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sortzea dagoala aurreikusita esan dau. Ekimena, baseleizea berreskuratzeke eta barriztetako proiektuaren barruan dago. Proiektu horretan alkarregaz beharrean dabilz Foru Aldundia, Elorrioko Udala eta Bilboko Gotzaindegia, baseleizaren jaubea.

Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian, Foru Diputatu andreak gogoratu dau 2012an egindako arkeologia jarduketei esker, leku horretako biztanleriari buruzko xehetasunak zorroztasun zientifikoagaz ezagutu ahal izan dirala.

Argiñetako moltsoan ikerketa proiektua hasi zanetik, Foru Aldundiak eta Elorrioko Udalak aurreikusi eta iragarri eben 2012an aztarnategia aztertzeke prozesua amaitu ostean baseleizea barriztetako beharrak hasiko zirala. Inplikauta dagozan erakundeen artean egindako bileren ostean, une honetan beharrean ari dira, Argiñetako San Adrian baseleizan egin beharreko lanak 2015ean hasi daitezcan.

Gai horri buruz berbetako diputatu andrearen agerraldia eskatu dauen Arturo Aldecoa Bizkaiko Talde Popularrereko bozeroalea pozik agertu da “Bizkaia iradokiten dauen leku eder eta magiaz betetako hori” barriztetako azaldu diran neurriak dirala eta.

BOINAS LA ENCARTADA MUSEOA

Batzar Nagusietako Bizkaiko Talde Popularrak eskatuta, baita be, Kulturako Foru Diputatuak Balmasedako Boinas La Encartada Museoaren proiektua BizkaiKOA foru enpresa erakunde publikoaren kudeaketa eremuan sartzeko prozesua azaldu dau. Kudeaketa eremu horretan beste hainbat museo eta kulturgune dagoz, Bilboko Museo Arkeologikoa, Bermeoko Arrantzaleen Museoa edo Muskizeko El Pobal burdinola, besteak beste.

Foru Aldundiaren eta Balmasedako Udalaren artean lortutako akordioaren barruan, orain arteko Museoaren kudeaketagaz arduratu dan fundazioa desegitea eta bertako hiru beharginen lan subrogazioa dator. Datorren 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, hiru behargin horreek BizkaiKOA lantaldeko kide bilakatuko dira. Ariztondok jakinarazo dauenez, Museoak 220.000 euroko diru-laguntzea euki dau urtero. Horreetatik 200.000 Foru Aldundiak jarri ditu orain arte, eta 20.000 Balmasedako Udalak.

TORRETXEAK

Kultura eta Euskerako Batzordeak aho batez onartu dau PP-k aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bat. Proposamen horretan eskaria egiten jako Eusko Jaurlaritzari, bakotxak bere aldetik Euskadiko Kultur Ondarearen Legearen arabera Kultur Ondasun adierazpena jasota daukien Bizkaiko Torretxe kopurua aztertu eta zabaldu daian eta Euskadin dagozan Torretxeak, moltso gisa, Kultur Espazio izendatzeko aukerea aztertu eta bultzatu daian, “gure iraganeko gertakarien eta gizarte eta lurralde antolakuntza egituraren eta Erdi Arotik Aro Modernora bitartean gure herrian nagusi ziran kulturaren eta bizitzeko moduen adierazpide diralako”.

Bere proposamena defendiduteke orduan, Aldecoak adierazo dau “Bizkaian 160 torretxe baino gehiago dagozala, Kultur Ondare adierazpena daukienak 45 baino ez diran arren”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Beste alde batetik, Kultura eta Euskerako Batzordeak ez dau onartu PP-k aurkeztu dauen beste Arauz Besteko Proposamen bat. Proposamen horretan eskaerea egiten zan, “2015ean eta 2016an, Bilbo eta Santurtzi eta Bilbo eta Getxo arteko tranbia elektrikoen ezarpenaren 125. urteurrenak ospatu daitezcan, Espainian aitzindariak izan zirala kontuan izanda”. Proposamenak PP eta PSE-PSOE taldeetako lau ordezkarien aldeko botoa jaso dau, eta EAJ-PNV eta EH Bildu taldeetako bederatziek kontra bozkatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La diputada foral de Cultura defiende en Juntas Generales la ampliación del acuerdo del Museo Guggenheim de Bilbao

En Bilbao, a 13 de noviembre de 2014.

La Diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha defendido en la comisión de Cultura y Euskera, celebrada hoy, la renovación del Acuerdo de Gestión del Museo Guggenheim de Bilbao tras las negociaciones llevadas a cabo entre las instituciones vascas, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Bizkaia, y Solomon R. Guggenheim Foundation.

Ariztondo ha señalado en su intervención el deseo de todas las partes no sólo de continuar con la relación entre Guggenheim Bilbao Museoa y la fundación estadounidense, sino de ampliarla, “para dar cabida a nuevos proyectos que generen valor añadido a la colaboración y la refuercen con un acuerdo por un plazo más extenso del inicialmente previsto”.

La Diputada Foral de Cultura ha detallado los principios y criterios del Acuerdo de Renovación en cuyo desarrollo se sigue trabajando. “Ambas partes estamos trabajando en la búsqueda del texto definitivo que esperamos tener ultimado en las próximas semanas”, ha asegurado.

Ariztondo ha matizado que “la renovación, que esperamos se materialice antes de finalizar el año, va a articular una nueva estructura en la relación con la Solomon R. Guggenheim Foundation, en la que prevalecerá la colaboración, acorde a la madurez y experiencia demostradas por Guggenheim Bilbao Museoa a lo largo de su trayectoria”. Asimismo, ha recordado que la iniciativa se alinea en base a las recomendaciones de la Ponencia del Parlamento Vasco y la Proposición no de Norma aprobada en las Juntas Generales de Bizkaia.

La Diputada Foral de Cultura ha comparecido a petición propia para dar cuenta de este asunto, una comparecencia que también había sido solicitada por el Grupo Juntero de Bildu. Su portavoz Irune Soto ha pedido un mayor nivel de exigencia de las instituciones vascas de cara a la renovación del acuerdo con Solomon R. Guggenheim Foundation, proponiendo incluso la posibilidad de que el museo de Bilbao “deje de ser una franquicia de la fundación americana”. Soto ha trasladado a la Diputada Foral de Cultura algunas demandas de su grupo como “el abaratamiento del precio de las entradas para el público local, la creación de un grupo propio de conservadores y una mayor promoción de artistas autóctonos”.

CENTRO DE INTERPRETACIÓN EN ARGIÑETA DE ELORRIO

Ariztondo ha anunciado que la Diputación Foral de Bizkaia, continuará en 2015 con el proyecto de recuperación y puesta en valor del conjunto de Argiñeta y su entorno, en Elorrio, datado entre los siglos VII y XI y que presenta la mayor concentración de sepulcros y estelas altomedievales del País Vasco. En este sentido, ha informado de que la Institución foral tiene previsto crear un Centro de Interpretación arqueológico e histórico en la ermita de San Adrián de Argiñeta. La iniciativa se enmarca en el proyecto de recuperación y restauración de la ermita en el que están trabajando de forma conjunta la Diputación Foral, el Ayuntamiento de Elorrio y el Obispado de Bilbao, propietario del templo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En su intervención en Juntas Generales, la Diputada Foral ha recordado que las actuaciones arqueológicas llevadas a cabo en 2012 documentaron datos que han permitido conocer con rigor científico detalles sobre la población del lugar.

Desde que comenzó el proyecto de investigación en el conjunto de Argiñeta, tanto la Diputación como el Ayuntamiento de Elorrio contemplaron y anunciaron en 2012 que tras finalizar el proceso de estudio en el yacimiento se acometería la recuperación de la ermita. Tras reuniones mantenidas entre las entidades e instituciones implicadas, en la actualidad se trabaja para que en el año 2015 comience la intervención en San Adrián de Argiñeta.

El portavoz del Grupo Popular Vizcaíno Arturo Aldecoa, que había pedido la comparecencia de la Diputada para tratar este tema, se ha felicitado por las medidas expuestas para la recuperación de “este lugar bello, mágico y evocador de Bizkaia”.

MUSEO DE BOINAS LA ENCARTADA

También a solicitud del Grupo Popular Vizcaíno en Juntas Generales, la Diputada Foral de Cultura ha explicado el proceso de integración del proyecto Museo de Boinas La Encartada de Balmaseda en el ámbito de gestión de la entidad pública empresarial foral BizkaiKOA, al cual pertenecen otros museos y centros culturales como el Museo Arqueológico de Bilbao, Arrantzaleen Museo de Bermeo o la Ferrería de El Pobal de Muskiz.

El acuerdo alcanzado entre la Diputación y el Ayuntamiento de Balmaseda incluye la disolución de la fundación que hasta ahora se había hecho cargo de la gestión del Museo y la subrogación laboral de sus tres trabajadores, que pasan a formar parte de la plantilla de BizkaiKOA a partir del próximo día 1 de enero de 2015. Ariztondo ha informado también que el Museo ha contado con una subvención anual de 220.000 euros, de los cuáles 200.000 han sido aportados hasta ahora por la Diputación y 20.000 por el Ayuntamiento de Balmaseda.

CASAS-TORRE

La Comisión de Cultura y Euskera ha aprobado por unanimidad una Proposición No de Norma presentada por el PP que insta al Gobierno Vasco a revisar y ampliar el número de Casa Torre existentes en Bizkaia, declaradas individualmente como Bien Cultural según la Ley de Patrimonio Cultural Vasco, y a estudiar y promover la declaración como Espacio Cultural del conjunto de las Casas Torre existentes en Euskadi, “por ser expresión tanto de los acontecimientos y la estructura organizativa territorial y social de nuestro pasado, como de la cultura y modos de vida de nuestro pueblo en el tránsito de la edad media a la edad moderna”.

En su defensa de la propuesta, Aldecoa ha señalado que “en Bizkaia existen más de 160 Casas-Torre, aunque solo 45 están declaradas como Bien Cultural”.

La Comisión de Cultura y Euskera ha rechazado, sin embargo, otra Proposición No de Norma presentada también por el PP y en la que solicitaba “la celebración en 2015 y 2016 del 125 aniversario de la implantación, pionera en España, del tranvía eléctrico entre Bilbao y Santurtzi y entre Bilbao y Getxo, respectivamente”. La propuesta ha sido apoyada por los cuatro



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

representantes de PP y PSE-PSOE, mientras que ha recibido los votos en contra de los nueve de PNV y EH Bildu.